



**52 URTETIK GORAKOEN
LANGABEZIA-SOROSPENA.
ITSASOAREN ARAUBIDE BEREZIA.**



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA




INSTITUTO SOCIAL DE LA MARINA



AURKIBIDEA

SARRERA.....	5
¿ZEIN BERARIAZKO BALDINTZAK ESKATZEN DIRA?	7
¿ZEIN BERARIAZKO BALDINTZAK ESKATZEN DIRA?	7
IRAUPENA ETA KOPURUA	9
ORDAINKETA.....	10
¿ZEIN DOKUMENTAZIO ERANTSI BEHAR DUT?	10
¿NOIZ ESKATUKO DUT SOROSPENA?	11
¿NON AURKEZTUKO DUT ESKAERA?	13
SOROSPENAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA	13
SOROSPENAREN ETETEA ETA IRAUNGITZEA	14
ITSASOKO GIZARTE INSTITUTUAREN ZUZENDARITZA PROBINTZIALEN ZERRENDIA.....	18



SARRERA

Aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren bidez, orduan indarrean zegoen 1994ko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginean zegoen 52 urtetik gorakoen sorospenaren arautzea aldatu zen, 55 urtetara igoaz heltzeko adina, erretiroaren legezko adinetik erretiro-pentsio kontributiboa eskura daitekeen unera arteko iraupena murriztuz edozein izanik ere modalitatea, eta beharrez ere kotizaziora une bakoitzean indarrean dagoen gutxieneko kotizazio-muga ehuneko 125etik ehuneko 100era.

Urriaren 23ko, 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onarturiko Enpleguaren Legeak xedatzen du enplegu-politikaren helburuetariko bat bezala lan-munduan txertatzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboei zuzenduriko laneratze politika egokiak ziurtatzea, bereziki 45 urtetik gorakoak aipatuz. Horrela, 52 urtetik gorakoen pertsonen langabezia egoeren babesak - enplegu-politikaren oinarrizko alderdia-lehentasuna du hala hain zaugarria den kolektibo honen egungo babesa bermatzeko nola etorkizuneko, sorospen honek etorkizuneko erretiro-pentsioaren kopuruan zuzenean eragiten baitu.

Honela, martxoaren 8ko 8/2019 Errege Lege-Dekretuak, gizarte-babeserako eta lanaldian lan prekarietatearen aurka borrokatzeko presako neurriei buruzkoa, 55 urtetik gorakoentzako langabezia-sorospenaren arautzearen aldaketa aurreikusten du, orain Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuan dagoena, sei alderditan:

- Sartzeko adina 55etik 52 urtetara jaitsi.
- Sorospenaren ekintza eragilearen unean 52 urteko adina beteta izatearen baldintza kendu, adin hori betetzen denean utziz sartzen
- Bere gehienezko iraupena gehitu, beraz orain erretiroko adin arrunta bete arte jasoko dena
- Sorospena eskuratzeko unitate familiarraren errenten kontsiderazioa ezabatu.

- Sorospenaren jasotzean zehar erretiroko kontingentziagatiko kotizazioaren kopurua gehitu une bakoitzean indarrean dagoen gutxieneko kotizazio-muga ehuneko 125etik ehuneko 100era
- Lanaldi partzialean egindako lan batetik datorrenean sorospenaren kopuruari aplikagarri zaizkion ehunekoak ezabatu.

Honako gida honekin, Itsasoko Gizarte Institutuak, Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziaren Erakunde Kudeatzaile bezala, bere adinagatik eta enplegua aurkitzeko bere zailtasunengatik zaurtasun egoeran aurki daitezkeen itsasoko pertsona langileei hedatu eta ezagutarazi nahi dizkie, 52 urtetik gorako en langabezia-sorospena.



¿ZERTAN DATZA 52 URTETIK GORAKOEN LANGABEZIA-SOROSPENA?

Laguntza-prestazio bat da eta langabezia egoeretan kontribuzio-izaerako prestazioaren babesia osatzea du helburu. Prestazio ekonomiko bat eta erretirorako Gizarte Segurantzari ordaintzen zaion kotizazioaz osatuta dago.

¿ZEIN BERARIAZKO BALDINTZAK ESKATZEN DIRA?

1. Langabezian egotea.
2. Eskaera datan 52 urte baino gehiago izatea.
3. Langabezia-prestazioa agortzetik hilabetez zehar enplegu eskatzaile bezala izena emanda egotea, edo enplegu eskatzaile bezala izena ematearen datatik sorospena emigratzaile itzulia, espetxetik askatua edo ezintasunaren berrikuspenagatik eskuratzen bada, eta hilabete horretan lanpostu egokiko eskaintzarik ez baztertu izana, ez eta uko egitea ere, justifikaturiko arrazoia izan ezik, sustatze, prestakuntza edo birmoldaketa profesionaleko ekintzei. Izena ematea sorospenaren jasotze aldi osoan zehar mantendu beharko da.
4. Hileroko zenbaketan lanbide arteko gutxieneko soldataren %75etik gorakoak diren edozein izaerako errenta propioak ez izatea, aparteko bi ordainsariren zati proportzionala baztertuta. Baldintza hau ekintza eragilearen datan beteko ez balu, sorospena eskura dezake orduak hona urtebeteko epe barru bete eta egiaztatzen badu. Dena den, baldintza honen betetzea sorospenaren jasotze aldi osoan zehar mantendu beharko da.
5. Bere lan-bizitzan zehar gutxienez sei urtetan zehar langabeziagatik kotizatu izana. Horretarako delako kontingentziagatik egindako kotizazio guztiak hartuko dira kontutan, Gizarte Segurantzaren edozein Araubidetan, Europako Esparru Ekonomikokoak diren herrialdeetan edo zeintzuekin langabeziagatik babeserako aldien totalizazio hitzarmena dagoen.

6. Ekintza eragilearen eta sorospenaren eskaera datan baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu, adina izan ezik, erretiro-pentsio kontributiboko edozein mota eskuratzeko.
7. Hurrengo suposizioen baten barne egotea:
 - Langabezia-prestazio kontributiboa agortu izana, ardura familiarrak izatea eskatu ez daitekeelarik.
 - Legezko langabezia egoeran egotea eta kotizaziopeko langabezia prestaziorik jasotzeko eskubiderik ez izatea gutxienezko kotizazio aldia (hamabi hilabete) ez betetzeagatik, betiere gutxienez hiru hilabetez kotizatu badute.
 - Espainiara itzultitako emigratzailea izatea, azken sei urteetan gutxienez 12 hilabetez atzerrian lan egin izana, Espainiatik azken aldiz irten zenetik, Europar Batasunetik (EB) edo Europako Esparru Ekonomikotik (EEE) ez datozen herrialdeetan, eta langabeziagatiko ordaindutakoaren arabera prestazioa jasotzeko eskubiderik ez izatea.
 - Langabeziagatiko ordaindutakoaren arabera prestazioa jasotzeko eskubiderik gabe espetxetik askatua izatea, askatasun-gabetzea 6 hilabetetik gorakoa izan denean.
 - Ohiko lanbiderako baliaezintasun handiko, ezintasun iraunkor absolutuko edo ezintasun iraunkor osoko egoera hobetzeagatik berrikuspen espediente baten ondorioz, erabat gai deklaratu izatea edo ezintasun iraunkor partziala duen pertsona izatea
8. Aurreko kasuetako batean dagoen egunean 52 urte bete ez baditu, baina data horretatik aurrera enplegu zerbitzu publikoetan enplegu eskatzaile gisa etengabe izena emanda badago, sorospena eskatu ahal izango du adin hori betetzen duenean. Etenik gabe inskribatzeko baldintza betetzat joko da enplegu eskatzaile gisa inskribatzeko balizko etenaldi bakoitzak 90 egun baino gutxiagoko iraupena izan duenean, eta ez dira zenbatuko norberaren edo besteren konturako jardura bati dagozkionaldiak. Besteren konturako langileak ezin izango du sorospenik jaso azken lana borondatez utzi badu.

9. Sorospenaren eskaeran jasota dagoen jarduera konpromisoa betetzea.
10. Aldizkako langile finko ez izatea
11. Zehapen irmoa ezartzeagatik aitortutako langabeziagatik babeserako azken eskubidea azkendu ez izana.



IRAUPENA ETA KOPURUA

Gizarte Segurantzaren sisteman erretiro-pentsio kontributiboa jasotzeko eskatzen zaizun ohiko adinera iritsi arte iraungo du. Erretiro-pentsioaren ondorioek erretiro adina betetzeagatik sorospena azkentzen den egunera arteko atzeraeragina izango dute. Horretarako, erretiro eskaera azkentzea ebatzi eta hurrengo hiru hilabeteen barruan egin behar da. Bestela, pentsioa eskatzen denetik gehienez ere hiru hilabeteko atzeraeragina izango du.

Langabezia-sorospenaren hileko zenbatekoa ondorio anitzeko errenta adierazle publikoaren (OAEAP) % 80 da. 420,27 € hilean, 2020an.

Erakunde kudeatzaileak erretiroari dagozkion Gizarte Segurantzako kotizazioak sartuko ditu. Erretiroagatiko kotizazio oinarria une bakoitzean indarrean dagoen gutxieneko kotizazio mugaren ehuneko 125 izango da. Kotizazio horiek kontuan hartuko dira erretiro-pentsioaren oinarri arautzailea kalkulatzeko eta horri aplikatu beharreko ehuneko kalkulatzeko, bai eta erretiro aurreratua hartzeko behar den denbora osatzeko ere.

ORDAINKETA

30 eguneko hilerokotan egingo da, sortzapena dagokion hilaren hurrengo hilaren 10etik 15era bitartean. Zuk adierazitako finantza erakundearen kontuan abonatuta egingo da, betiere erakundearen titularra bazara.

¿ZEIN DOKUMENTAZIO ERANTSI BEHAR DUT?

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da:

- Eskabide-eredu ofiziala.
- Eskatzailearen identifikazio dokumentua; datuak egiaztatzeko, nahikoa izango da dokumentu hauetako bat erakustea:
 - Espainiarrak: Nortasun Agiri Nazionala (NAN) edo pasaportea.
 - Espainian bizi diren atzerritarrak:
 - Europar Batasuneko nazionalak: Europar Batasuneko herritarraren erregistro ziurtagiria, non AIZ agertzen den, jatorrizko herrialdeko pasaportearekin edo identifikazio agiriarekin batera.
 - Europar Batasunekoak ez direnak: atzerritarren nortasun agiria (AIT), AIZ eta pasaportea dituenak.

- Edozein banku dokumentu, zeinean titularra zaren eta prestazioa jaso nahi duzun kontu-zenbakia agertzen baita.
- Itsasoko Gizarte Institutuak eskatzen badu soilik, errenten egiaztatzea.

Sorospenerako eskubideari eusteko, errenta propiorik ez izatearen baldintza betetzen jarraitzen duela justifikatu behar du. Horretarako, bere errenten aitorpena aurkeztu behar du Itsasoko Gizarte Institutuan, hamabi hilean behin, sorospenerako eskubidea sortzen den egunetik edo azken aldiz berrabiarazten den egunetik zenbatzen hasita. Adierazpen hau aurkezteko epea 15 egunekoa da, hamabi hilabete betetzen diren egunetik aurrera.

Adierazitako epean aitorpen hori aurkezten ez badu, sorospeneraren eta Gizarte Segurantzako kotizazioaren ordainketa eten egingo da.

Aitorpena epez kanpo aurkezten badu, sorospena berriro kobratzen hasiko da, baina aitorpena aurkezten duen egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

52 urtetik gorakoentzako sorospena jasotzen duten langileek hitzarmen berezi bat sinatu ahal izango dute, Itsasoko Gizarte Institutuaren probintzia-zuzendaritzaren bidez, 52 urtetik gorakoentzako langabezia sorospena jasotzen duten bitartean erretiroagatikot kotizazioa osatzeko.

¿NOIZ ESKATUKO DUT SOROSPENA?

Hainbat suposizio eman daitezke:

1. 52 urte edo gehiago baditu, hilabete bateko itxaronaldia bete eta hurrengo 15 egun balioduneko epean eskatu behar du, edo, bestela, lana nahi gabe utzi duelako legezko langabezia egoera egiaztatzen duen egunaren ondorengo 15 egun baliodunetan, 90 egunetik gorako eta 360 egunetik beherako okupazio aldia egiaztatuz

Kasu horietan, epe barruan eskatuta, 52 urtetik gorakoentzako sorospena itxaronaldiko hilabetea bete eta hurrengo egunetik edo legezko langabezia egoeraren hurrengo egunetik aurrera sortuko da.

2. 52 urte beteta ez baditu, adin hori bete eta hurrengo 15 egun balioduneko epean aurkeztu beharko du eskaera, betiere ordura arte enplegu eskatzaile gisa inskribatuta egon bada.

Adin hori betetzen duenean beste edozein sorospen jasotzen ari bada, hura iraungi egingo da eta 52 urtetik gorakoentzako sorospena aitortuko da.

Bi kasuetan, epe barruan eskatuta, eskubidea 52 urte bete eta hurrengo egunetik aurrera sortuko da.

3. Errentarik ez izateko baldintza ekintza eragilearen egunean betetzen ez denean (hilabeteko itxarote epea betetzen den eguna edo legezko langabezia egoera gertatzen den eguna, edo sei hilean behin eskubidea agortzen den eguna, edo etete arrazoia amaitzen den data, edo 52 urte betetzearen data, sorospen bat eskuratzeko kasuren batean dauden egunean ez bazituzten), baldin eta eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen baditu, gertaera eragilearen egunean 52 urte izatea barne, 52 urtetik gorakoentzako sorospena eskuratu ahal izango du, ekintza eragilearen egunetik urtebeteko epean errentarik ez duela egiaztatzen badu; kasu horretan, sorospena jaso eta hurrengo egunetik aurrera eskuratu ahal izango du.



¿NON AURKEZTUKO DUT ESKAERA?

Honako hauen bidez aurkez dezakezu eskabidea:

- La sede electrónica del SEPE.
- Zure etxetik gertuen dagoen Itsasoko Gizarte Institutuaren bulegoan.
- Erregistro publikoko edozein bulegotan.
- Posta administratibo bidez.

SOROSPENAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

Bateragarritasuna

Langabezia-sorospena jasotzea bateragarria izango da:

- Besteren konturako lanaldi partzialeko lan ordainduarekin, baldin eta langileak erabakitzen badu sorospena bere zenbatekoan murriztuta mantentzea, egiten duen lanaldiaren proportzio berean.
- Lan kontratua azkentzeagatik dagokion kalte ordainarekin.
- Erretiro partzialeko pentsioarekin eta langabezia prestazioa edo sorospena eragin zuen lanarekin bateragarriak izan diren Gizarte Segurantzaren pentsioak edo prestazio ekonomikoekin.
- Lanerako prestakuntzako ekintzetara joateagatik edo ikasketa planaren parte diren erakunde publiko edo pribatuetan praktikak egiteagatik lortzen diren beka eta laguntzekin, betiere erakunde horien eta dagokion ikastetxearen arteko lankidetzaren esparruan gertatzen badira.
- Gizarte-lankidetzako lanak egitearekin.
- Ardurapeko seme-alabengatik Gizarte Segurantzaren prestazioekin.
- Ordaindutako kargu publiko edo sindikalen hautatze edo izendatzearen aritzearekin zeinak arduraldi partziala dakarten.

Bateraezintasuna

Langabezia-sorospena jasotzea bateraezina da:

- Hileko zenbaketan, LGSren % 75etik gorako edozein motako errentak eskuratzearekin, aparteko bi ordainsarien zati proportzionala alde batera utzita.
- Besteren konturako lanaldi osoko lan ordainduarekin.
- Norberaren konturako lanarekin.
- Erabateko arduraldia eskatzen duten ordaindutako ikerketa edo lankidetza jarduerekin. Ordaindutako administrazio kargu publikoak, sindikalak edo goi-kargudunak hautatu edo izendatzeagatik, zeintzuk erabateko arduraldia eskatzen duten.
- Gizarte Segurantzaren izaera ekonomikoen pentsio edo prestazioekin, kontribuzio-mailakoak zein kontribuzio-mailakoak ez direnak, bateragarritasun-atalean aipatutakoak izan ezik.
- Erreserba ordainduaren jarduerarekin, zeinak abenduaren 12ko 1691/2003 Errege Dekretuak erreferentzia egiten dion, borondatezko erreserbisten sarbideari eta araubideari buruzko araudia onartzen duenak.
- Jarduera uzteagatik jaso ez diren ordainsarien ordezkotza, izaera publikoko ordainsari ekonomikoak jasotzeko eskubidea dakarren beste edozein egoerakin, administrazio edo lan-lotura mantenduz.

SOROSPENAREN ETETEA ETA IRAUNGITZEA

Langabezia-sorospenaren etetea

Eskubidea eteteak prestazio ekonomikoen eta kotizazioaren ordainketa etetea dakar, eta ez du eraginik izango hura jasotzeko aldian zehapenen kasuan izan ezik eta honako hauek dira etendura eragin duten arrazoiak:

- Dagokion aldian arau-hauste arin eta larriengatik zehapena ezartzea. Zehapen-aldia amaituta, onuraduna ez badago enplegu-eskatzailerik gisa inskribatuta, sorospenari berrekiteko, erakunde kudeatzailearen aurrean agertu beharko du, inskripzio hori egiaztatzeko.

- Adingabea jaio eta zaintzen den bitartean.
- Askatasun-gabetzea dakarren kondena betetzea, salbu langileak familia-kargak baditu eta familia-errentarik ez badu, eta horren zenbatekoa lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoa bada, kasu horretan, sorospena jasotzen jarraituko du interesdunak aldeztu aurretik eskatuta.
- Besteren konturako 12 hilabetetik beherako lana egitea, edo norberaren konturako 60 hilabetetik beherako iraupena duen lana, Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Araubide Berezian. Halaber, eten egingo da norberaren konturako lana 24 hilabete baino gutxiagokoa izan bada, eta berdin dio Gizarte Segurantzako araubideren batean norberaren konturako langile gisa alta eman izana.
- Enpresaren borondatez zerbitzuak ematen jarraitzen duenean edo ematen ez dituenean, epai batek kaleratzearen bidegabetasuna edo deuseztasuna deklaritzen badu eta enpresaburuak berriro hartzea erabakitzen badu eta errekurtsoren bat jartzen badu, errekurtsoren izapidetzeak irauten duen bitartean. Era berean eten egingo da baldin eta langileak berriz hartzea erabakitzen badu eta errekurtsoa jartzen badu.
- Egoitza atzerrira lekualdatzea lan bat bilatzeko edo egiteko, lanbide-hobekuntzarako edo nazioarteko lankidetzarako hamabi hilabete baino gutxiagorako, betiere irteera aldeztu aurretik jakinarazita eta erakunde kudeatzaileak baimenduta badago. Halaber, atzerriko egonaldiak ere eten egingo du eskubidea, urte natural bakoitzean gehienez laurogeita hamar egun naturalekoa, jarraitua izan edo ez, betiere atzerrira irtetea aldeztu aurretik jakinarazita eta erakunde kudeatzaileak baimenduta badago. Ez da egonalditzat edo bizilekuz aldatzetzat hartuko atzerrira urtean behin gehienez hamabost egun naturalez irtetea, ezarritako betebeharrak betetzeari kalterik egin gabe. 12 hilabete baino gutxiagorako, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75etik gorako errentak lortzea, bai eta hamabi hilabete baino gutxiagorako familia-erantzukizunak betetzeari uztea ere, eskubidea aitortzeko beharrezkoa izan denean.

Berriz ekitea

Etete-kasu guztietan, zehapenagatik izan ezik, langileak eskubidea berriz hasteko eskatu behar du etendura eragin zuen arrazoia amaitzean.

Berriz ekiteak langabezia-sorospena jasotzeko eskubidea ekarriko du, geratzen zaion aldian, baldin eta egiaztatzen badu etetearen arrazoia amaitu dela, kausa hori legezko langabezia-egoera dela, edo, norberaren konturako langileen kasuan, enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta dagoela, edo errentarik ez izateko edo familia-erantzukizunak izateko baldintzak mantentzen direla.

Etetea hasi eta hogeita lau hilabete igaro ondoren langabezia-sorospena berriz ekitea eskatzen duten norberaren konturako langileek egiaztatu beharko dute beren konturako jardura uzteagatik arrazoi ekonomikoak, teknikoak, produkziokoak edo antolamenduzkoak gertatzen direla, ezinbesteko arrazoia dela jardura uztea, administrazio-lizentzia galtzea, genero-indarkeria, dibortzioa edo ezkontza-banantzea, sozietate bateko kontseilariaren edo administratzailearen kargua ez borondatez uztea edo zerbitzuak ematea eta ekonomikoki mendekoa den norberaren konturako langileen eta haren bezeroaren artean sinatutako kontratua iraungitzea, hori guztia aurreikusitako araudiaren araberako baldintzetan.

Norberaren konturako lana utzi ondoren langileak jardura uzteagatik babeserako eskubidea badu, aukera izango du hura jasotzeko edo etendako langabezia-babeserako eskubidea berriz irekitzeko. Langileak aurreko prestazioa aukeratzen badu, aukeratu ez duen prestazioa sortu zuten kotizazioak ezin izango dira zenbatu geroko eskubide bat aitortzeko.

Zehapenaren ondoriozko etenduraren kasuan, eskubidea ofizioz berrabiaraziko da, betiere eskubidea agortuta ez badago eta langilea enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta badago.

Prestazioa berriz hasteko eskubidea etetearen arrazoia amaitzen denetik aurrera sortuko da, baldin eta hurrengo 15 eguneko epean eskatzen bada. Eskaera egiteko, enplegu-eskatzaile gisa inskribatu beharko da, aldez aurretik egin ez bada, eta jardura-konpromisoa berraktibatutzat joko da, beste konpromiso berri bat izenpetzea eskatzen den kasuetan izan ezik.



Eskaera aipatutako epea igaro ondoren aurkezten bada, prestazio-egunak galduko dira, baldin eta epe eta modu egokian eskatu izanaren eskubidea sortu den dataren eta eskaera benetan egin den dataren artekoak badira.

Urteko opor ordainduei badagokie eta oporraldia amaitu aurretik hartu ez bada, legezko langabezia-egoera eta eskubidea sortzea aldi hori igarotakoan gertatuko da, betiere oporraldia amaitu eta hurrengo hamabost egunen barruan eskatzen bada.

Langabezia-sorospena iraungitzea

Langabezia-sorospenerako eskubidea honako arrazoi hauengatik iraungitzen da:

- Aitortutako aldia agortzea.
- Langilearen bizilekua edo egonaldia atzerrian aldatzea, etete-kasuetan izan ezik.
- Onuradunaren heriotza.
- Onuraduna erretiroagatiko edo ezintasunagatiko pentsio baten hartzaile izatera pasatzea (oso, absolutua edo baliaezintasun handia), eta ezintasun-kasuan, prestazio bat edo bestea aukeratu ahal izango du.



- Hamabi hilabete edo gehiago irauten duen besteren konturako lan bat egitea, edo hirurogei hilabete edo gehiago irauten duen norberaren konturako lan bat egitea, Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Araubide Berezian alta hartzen duten norberaren konturako langileen kasuan.
- Onuradunak erretiro-adin arrunta betetzea, salbu eta kontingentzia horrengatik pentsioa jasotzeko eskubiderik ez badu edo administrazio-ebazpen bidez baimendutako lan-harremanak etetea edo lanaldia murriztea bada.
- Eskubideari borondatez uko egitea.
- Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren % 75a gainditzen duten errentak lortzea, 12 hilabetez edo gehiagoko epean zehar.
- Familia-erantzukizunen baldintza betetzeari uztea, eskubidea aitortzeko beharrezkoa izan denean, 12 hilabetez edo gehiagoko epean zehar.
- Zehapena ezartzea, Lan Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legean aurreikusitako moduan.

ITSASOKO GIZARTE INSTITUTUAREN ZUZENDARITZA PROBINTZIALEN ZERRENDA



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA

DIRECCIÓN PROVINCIAL	DIRECCIÓN	C.P.	POBLACIÓN	TELÉFONO
ALICANTE	C/ Faro de Santa Pola, 2	03001	Alicante/Alacant	96 512 65 23
ALMERIA	C/ Puerto Pesquero, s/n	04002	Almería	95 062 02 11
ILLES BALEARS	C/ Moll Vell, 15	07012	Palma de Mallorca	97 172 56 06
BARCELONA	C/ Albareda, 1 - 13	08004	Barcelona	93 443 96 00
BIZKAIA	C/ Virgen de Begoña, 32	48006	Bilbao	94 473 90 00
CÁDIZ	Avda. de Vigo, s/n	11006	Cádiz	95 625 17 04
CANTABRIA	Avda. de Sotileza, 8	39009	Santander	94 221 46 00
CARTAGENA	C/ Muelle Alfonso XII, s/n	30202	Cartagena	96 850 20 50
CASTELLÓN	Pl. Miquel Peris i Segarra, s/n	12100	Catellón de la Plana /Castelló de la Plana	96 428 30 72
CEUTA	C/ Muelle Cañonero Dato, 20	51001	Ceuta	95 650 02 40
GIJÓN	C/ Celestino Junquera, 19	33201	Gijón	98 532 72 00
GIPÚZKOA	C/ Hermanos Otamendi, 13	20014	Donostia San Sebastián	94 348 32 00
HUELVA	Avda. Hispanoamérica, 9	21001	Huelva	95 925 74 11
A CORUÑA	C/ Ramón y Cajal, 2	15006	A Coruña	88 190 98 00
LAS PALMAS	C/ León y Castillo, 322	35007	Las Palmas de Gran Canaria	92 849 46 45
LUGO	C/ Rda. Músico Xosé Castiñeiras, 10 - bajo	27002	Lugo	98 222 50 10
MADRID	C/ Churruca, 2	28004	Madrid	91 591 99 00
MÁLAGA	C/ Pasillo del Matadero, 4	29002	Málaga	95 235 93 61
MELILLA	Avda. de la Marina Española, 7	52001	Melilla	95 176 43 00
TENERIFE	Avda. de Anaga, s/n	38001	Sta. Cruz de Tenerife	92 259 89 00
SEVILLA	C/ Fernando IV, 1	41011	Sevilla	95 428 60 28
TARRAGONA	C/ Francesc Bastos, 19	43005	Tarragona	97 719 10 00
VALENCIA	Av. del Port, 300	46024	Valencia	96 335 99 00
VIGO	Avda. Orillamar, 51	36202	Vigo	98 621 61 00
VILLAGARCIA	C/ Alejandro Cerecedo 8	36600	Vilagarcía de Arousa	98 656 83 00



**INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA**

*"Publicación incluida en el programa editorial del Ministerio de
Inclusión, Seguridad Social y Migraciones
(Real Decreto 2/2020, de 12 de enero)".*



**INCLUSIÓN, GIZARTE
SEGURANTZA ETA MIGRAZIO
MINISTERIO**

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA

GÉNOVA, 24 • 28004 MADRID
TEL.: 91 700 66 26 - FAX.: 91 700 68 19
Código DIR3: EA0021262
sscc.seguridadsocial.ism@seg-social.es

